

# **HABE**

Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundea

## **1. MAILA**

### **AZTERKETA IDATZIA**

**2008ko MAIATZA**

**Ereduak**

**A B**

**Aztertzaileentzako orriak**



# HABE

## ZUZENKETARAKO OHARRAK

Azterketa bakoitzari **idatziaren ebaluazio-fitxa** edo emaitzen fitxa bat dagokio. Azterketaren puntuazioa neurketa fitxa horretan idatzi behar da. Ikaslearen datuak fitxan idatzita izango ditu azterketaileak eta azterketaren barruan jasoko du fitxa hori.

Azterketaren batean fitxa falta bada, badaezpadako fitxa hutsak ere izango ditu, datuak eskuz bete eta puntuazioak bertan jartzeko.

Hiru trebetasunen emaitzak idatziko dira neurketa fitxan:

ENTZUMENA	gehienez, 20 puntu (gutxienez, 10 puntu gainditzeko).
IRAKURMENA	gehienez, 20 puntu (gutxienez, 10 puntu gainditzeko).
IDAZMENA	gehienez, 30 puntu (gutxienez, 15 puntu gainditzeko).

Emaitzen orriak beteta eta azterketak zuzenduta itzuliko dira HABEra.

## Azterketaren puntuazioa 1 MAILA

### Entzumena

Hiru entzungai dira.

1. entzungaian **8** galdera daude. Erantzun zuzen bakoitzeko azterketariari **puntu 1** emango zaio.
2. entzungaian **6** galdera daude. Erantzun zuzen bakoitzeko azterketariari **puntu 1** emango zaio.
3. entzungaian **6** galdera daude (1.a, 1.b, 2.a, 2.b, 3.a, 3.b). Erantzun zuzen bakoitzeko azterketariari **puntu 1** emango zaio.

Denera, **20 puntu** gehienez; **10** gutxienez.

### Irakurmena

1. mailan hiru testu irakurriko dira.

#### Lehenengo testua

Egitekoa: informazioa dagokion testuarekin lotu. 9 adierazpen dira. Lotura zuzen bakoitzeko **puntu 1** lortuko du (galdera batean bi puntu daude). Denera, **10 puntu**, gehienez.

#### Bigarren testua

Egiteko bakarra du. aukeratu erantzun zuzena. 5 galdera dira. Erantzun zuzen bakoitzeko **puntu 1**. Denera, **5 puntu**, gehienez.

#### Hirugarren testua

Egiteko bakarra du: adierazpen zuzenak eta okerrak aurkitu. 5 galdera dira. Erantzun zuzen bakoitzeko **puntu 1**. Denera, **5 puntu**, gehienez.

Hiru testuen artean, gehienez, **20 puntu** lor daitezke; 5 gutxienez.

# HABE

## Idazmena zuzentzeko oharrak

Akatsak ikusten direnean, ez jarri markarik testuan. Azterketaren ertza erabili laburdurak edo zeinuak idazteko. Arkatza erabili.

Ez azpimarratu eta ez biribildu akatsa. Alboko ertzean jarri zeinua.

Zati luze eta traketsak ertzean marra bertikala jarrita seinalatu.

Ez jarri zuzenketarik edo azalpenik idazlanean, are gutxiago iritzi edo iruzkinik.

Ez ezer azpimarratu.

Idazlanaren ertzetan laburdura hauek erabil litezke akats aipagarrientzat:

? ulergaitza, √ zerbait falta da, **dek** deklinabidea, **ad** aditza, **lex** lexikoa, **punt** puntuazioa, **sint** sintaxia, **erl** erlatibozkoa, **zg** zehar galdera, **nom** nominalizazioa, **konp** konparaziozkoa, **konpl** konpletiboa, **bal** baldintzazkoa, **ord** hitzen ordena, **kom** komunztadura, **lok** lokailua.

Kontuan izan ebaluazio irizpideak eta, irizpide bakoitza baloratu ondoren (ikuspegi orokorra, baliabide linguistikoak eta testuaren zuzentasuna), jarri azken emaitza.

Gehienez, **30** puntu. Gainditzeko, gutxienez **15**.

### Zuzenketa irizpideak

#### ■ **BALORAZIO OROKORRA (eskatu zaionari nola erantzun dion eta testuaren jarraipena)**

**Eginkizuna** bete du (eskatu zaiona erabat bete du/erdizka... / nahi duen ordenan eta nahi duen bezala, baina eman zaizkion puntu guztiak erabili beharko ditu).

Testu **koherentea** egin du (erraz ulertzen da / hari logikoa du...).

**Kohesioa** du bai esaldien artean, bai paragrafoen artean (antolatzaileak nola...).

Testu **mota** ongi aukeratu du? (eskatu zaiona **erregistro** formala/informala; testu motaren egitura...).

**Egitekoa:** euskaltegiko ikaskide bati bizi izandako esperientzia bat kontatu behar diote. Gaia: egindako irteera arazotsu bateko gorabeherak kontatzea. Testu mota: narratiboa, batez ere (narrazioa, azalpena...). Formatoa: lagunarteko Interneteko mezua. Testua informala. Dena dela, ikasleari jakinarazi zaio azterketan bertan euskararen zuzentasuna eta aberastasuna baloratuko zaizkiola.

Inputeko puntuak nahitaez aipatu beharrekoak dira (ik. Idazmena zuzentzeko baremoak).

#### ■ **BALIABIDE LINGUISTIKOAK (aberastasuna baliabideetan: sintaxian eta lexikoan)**

**Lexiko** aberatsa (hitz, esamolde...)

**Egitura** sintaktiko aberatsak. Antolatzaile, lokailu, kohesio-formak...

#### ■ **ZUZENTASUNA**

**Egitura morfosintaktikoen** erabilera

**Morfologia:** izen-sintagma, aditza, deklinabidea....

**Lexikoaren** erabilera

**Akatsek** komunikazioa eragozten dute (inoiz ez/ zenbaitetan...)

**Puntuazio-marken** erabilera

**Ortografia** akatsak

Ebaluazio orrian idatzi balorazioa eta puntuazioa, ez azterketan.

Ongi arrazoitu jarritako puntuazioa, batez ere *ez ga!* baldin bada.

### **Birzuzenketak**

Aztertzailleak zalantza handiak baditu, azterketa bati puntuazioa eman ondoren, hala adieraziko du eta birzuzenketa eskatuko du (ebaluazio-fitxan idatzita). Bere emaitza jarriko du, baina zalantzak dituela esango dio HABEri, emaitzak bertara eramaten dituenean. Azterketa hori birzuzenketan beste aztertzaille bati emango zaio berriz zuzentzeko.

Gainerakoan, HABEek erabakiko du birzuzenketak nola egin. Birzuzenketak ekainaren lehen astean egingo dira, eta aztertzaille guztiek hartuko dute parte.

# HABE

## Entzumena eta irakurmena

Bi zati horien emaitza ongi idatzi ebaluazio orrian. Puntuak ongi batu eta **batuketa errepasatu**. Puntuazioa emateko edo erantzunen bat onartzeko zalantzarik baldin baduzu, deitu HABEra, ebaluazio atalera, eta galdetu.

### ENTZUMENA

1. testua 8 x 1 = 8 puntu

<b>A</b> EREDUA	<i>0 adibidea</i> b	1- b	2- a	3- c	4- b	5- a	6- c	7- b	8- a
--------------------	------------------------	---------	---------	---------	---------	---------	---------	---------	---------

2. testua 6 x 1 = 6 puntu

<b>A</b> EREDUA	<i>0 adibidea</i> b	1- c	2- a	3- b	4- b	5- c	6- b
--------------------	------------------------	---------	---------	---------	---------	---------	---------

3. testua 6 x 1 = 6 puntu

<b>A</b> EREDUA	<i>0 adibidea</i> a. <i>Gasteizkoa</i> b. <i>Martxoaren 8an</i>	<b>1</b> a. pneumatiko berrietan (1) b. oparia da / ezer ez/doan(2)
	<b>2</b> a. 943697413 (3) b. Arkumea/esneko arkumea (4)	<b>3</b> a. menu bereziak (5) b. Errezilen (Tolosa - Azpeitia errepidean) (6)

Denera, 20 puntu gehienez; 10 gutxienez

### IRAKURMENA ETA IDAZMENA

1. testua 10 x 1 = 10 puntu

<b>A</b> EREDUA	<i>0 adibidea</i> a	1- b	2- c	3- a / b	4- b	5- a	6- c	7- a	8- c	9- a
--------------------	------------------------	---------	---------	-------------	---------	---------	---------	---------	---------	---------

2. testua 5 x 1 = 5 puntu

<b>A</b> EREDUA	<i>0 adibidea</i> a	1- a	2- c	3- b	4- c	5- a
--------------------	------------------------	---------	---------	---------	---------	---------

3. testua 5 x 1 = 5 puntu

<b>A</b> EREDUA	<i>0 adibidea</i> E	1- E	2- G	3- E	4- G	5- E
--------------------	------------------------	---------	---------	---------	---------	---------

Denera, 20 puntu gehienez; 10 gutxienez

# HABE

## ENTZUMENA

1. testua  $8 \times 1 = 8$  puntu

<b>B</b> EREDUA	<i>0 adibidea</i> <i>b</i>	1- a	2- c	3- b	4- c	5- b	6- a	7- a	8- c
--------------------	-------------------------------	---------	---------	---------	---------	---------	---------	---------	---------

2. testua  $6 \times 1 = 6$  puntu

<b>B</b> EREDUA	<i>0 adibidea</i> <i>b</i>	1- b	2- c	3- a	4- a	5- b	6- c
--------------------	-------------------------------	---------	---------	---------	---------	---------	---------

3. testua  $6 \times 1 = 6$  puntu

<b>B</b> EREDUA	<i>0 adibidea</i> <i>a. Gasteizkoa</i> <i>b. Martxoaren 8an</i>	<b>1</b> a. Nitrogenoz (1) b. Doan/ezer ez/ez da ordaintzen (2)
	<b>2</b> a. Arkumea/esneko arkumea (3) b. 943697413 (4)	<b>3</b> a. legatza eta zapoa (5) b. Tolosa-Azpeitia (6)

Denera, **20** puntu gehienez; **10** gutxienez

## IRAKURMENA ETA IDAZMENA

1.testua  $10 \times 1 = 10$  puntu

<b>B</b> EREDUA	<i>0 adibidea</i> <i>a</i>	1- a	2- b	3- c	4- a / b	5- b	6- c	7- a	8- c	9- a
--------------------	-------------------------------	---------	---------	---------	-------------	---------	---------	---------	---------	---------

2.testua  $5 \times 1 = 5$  puntu

<b>B</b> EREDUA	<i>0 adibidea</i> <i>a</i>	1- b	2- a	3- c	4- a	5- c
--------------------	-------------------------------	---------	---------	---------	---------	---------

3.testua  $5 \times 1 = 5$  puntu

<b>B</b> EREDUA	<i>0 adibidea</i> <i>E</i>	1- G	2- E	3- G	4- E	5- G
--------------------	-------------------------------	---------	---------	---------	---------	---------

Denera, **20** puntu gehienez; **10** gutxienez

# HABE

Eranskina

IDAZMENA ZUZENTZEKO BAREMOAK (ESKALA OROKORRA)

1 maila

<b>oso onak</b>	<b>24-25-30</b>
<i>Puntu guztiak garatuak</i>	
<i>Testu motari dagozkion ezaugarri guztiak <u>oso ongi</u></i>	
<b>Testu <u>erabat</u> koherentea</b>	
<b>Kohesioa <u>oso ona</u> esaldietan bai paragrafoen artean</b>	
<i>Hiztegi multzo <u>oso zabala</u></i>	
<b>Edukirako garrantzitsuak diren hitzak</b>	
<i>Egitura multzo <u>oso zabala</u></i>	
<b><u>la ez dago akatsik eta baldin badaude, mailatik gorakoak</u></b>	
<b><u>Hiztegia eta gramatika zuzen erabiltzen ditu eta ideiak argi adierazten ditu</u></b>	

<b>onak</b>	<b>18-19-20</b>
<i>Edukiari buruzko puntu <u>gehienak</u> landu ditu</i>	
<i>Puntu guztiak aipatu ditu</i>	
<i>Testu motari dagozkion <u>xehetasunetan</u> huts egin dezake</i>	
<b>Esaldietan <u>kohesio ona</u>. Paragrafoen arteko koherentzia eta kohesioa <u>ona</u></b>	
<i>Egitura multzo <u>egokia</u></i>	
<i>Hiztegi hedadura <u>ona</u></i>	
<b><u>Hiztegi garrantzitsua</u> edukiari begira</b>	
<b><u>Mailako formak zuzen</u> erabiltzen ditu</b>	
<b><u>Tarteka akatsak (ia beti mailatik gorakoak), baina gehienetan ideiak argi azaltzen ditu</u></b>	
<b><u>Komunikazioa eragozten duten akatsik ez</u></b>	

<b>gai</b>	<b>15-16-17</b>
<i>Edukiari buruzko puntu <u>batzuk</u> landu ditu</i>	
<i>Puntu gehienak aipatu ditu</i>	
<b>Testu motari dagozkion <u>puntu batzuetan</u> huts egin du</b>	
<b><u>Nolabaiteko kohesioa</u> esaldietan</b>	
<b><u>Batzuetan</u> koherentzia eta kohesio falta paragrafoen artean</b>	
<i>Egitura multzo <u>mugatua</u></i>	
<i>Hiztegi hedadura <u>mugatua</u></i>	
<b><u>Batzuetan oker erabilia</u>, ideia batzuk argi komunikatzen baditu ere</b>	
<b><u>Tarteka hitz garrantzitsuak erabiltzen ditu edukiari begira, baina instrukzioetatik (eredutik) hartutako zatiren bat edo beste erabiltzen du</u></b>	
<b><u>Komunikazioa eragozten duen akatsik ez du egiten</u></b>	
<b><u>Mailako akatsak han-hemenka (ez sistematikoak), mailatik gorakoak ere bai</u></b>	

<b>ez gai</b>	<b>13-14-12</b>
<i>Puntu batzuk aipatu ditu</i>	
<i>Ez ditu testu motari dagozkion baldintzak bete</i>	
<b><u>Kohesio falta</u> esaldietan eta paragrafoen artean</b>	
<b><u>Zenbaitetan</u> koherentziarik gabeko testua</b>	
<i>Egitura multzo <u>oso mugatua</u></i>	
<i>Hiztegi hedadura <u>oso mugatua</u></i>	
<b><u>Zenbaitetan oker erabilia</u></b>	
<b><u>Hitz garrantzitsu gutxi</u> erabiltzen ditu edukiari begiratuta eta instrukzioetatik (eredutik) hartutako zati batzuk erabiltzen ditu</b>	
<b><u>Komunikazioa eragozten duten akatsak egiten ditu</u></b>	
<b><u>Mailako akats sistematikoak</u></b>	

# HABE

ez gai garbiak 9↓-10-11

*Ez du edukiari buruzko punturik garatu*

*Koherentziarik eta kohesiorik gabeko testua*

*Egitura multzorik ez du*

*Hiztegi hedadurarik ez*

*Gehienetan hiztegia oker darabil, ideia argi gutxi komunikatzen ditu*

*Gehienetan akatsak egiten ditu, era askotakoak*

**5 puntu**

**Hitz kopurua bete ez dutenak.**

## LEHEN MAILAKO AZTERKETA

### ZATIAK ETA PUNTUAZIOA

#### LEHEN MAILAKO AZTERKETAREN ZATIAK ETA PUNTUAZIOA:

<b>Proba idatzia</b> <b>50</b> <b>gutxienez, 28</b>	Irakurmena	%20	gutxienez 10	20 puntu	35 min. inguru
	Idazmena	%30	gutxienez 15	30 puntu	60 min.
<b>Ahozko proba</b> <b>50</b> <b>gutxienez, 27</b>	Entzumena	%20	gutxienez 10	20 puntu	25 min.
	Mintzamena	%30	gutxienez 15	30 puntu	10 min.
<b>GUZTIRA</b>		<b>%100</b>	<b>Gutxienez 55</b>	<b>100 puntu</b>	

Agiria eskuratzeko gutxienez 55 puntu beharko dituzu eta 28 eta 27 proba bakoitzean

Agiria eskuratzeko ezinbestekoa da bi probetan (idatzian eta ahozkoan) gai izatea. Emaitza bakarra emango da: **GAI/ EZ GAI**.

Hauek dira idazmena zuzentzeko irizpideak:

**IKUSPEGI OROKORRA.** Eginkizuna betetzea, erraz ulertzea lehenbiziko irakurketan. Koherentea izatea, hari logiko bati jarraitzea.

**BALIABIDE LINGUISTIKOAK (ABERASTASUNA).** Lexikoaren aberastasuna. Erregistroa. Egitura aberatsak.

Antolatzaileak, lokailuak, kohesio-formak. Testu-motari dagokion egitura.

**ZUZENTASUNA.** Mailari dagozkion egitura morfosintaktikoen erabilera. Lexikoaren erabilera. Puntuazioa. Ortografia.